

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 3770

*AGINDUA, 2022ko abuztuaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, María Teresa Ruiz López andrea Hezkuntza Saileko Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusiko ikuskari nagusi kargutik kentzea xedatzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– María Teresa Ruiz López andrea Hezkuntza Saileko Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusiko ikuskari nagusi kargutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak emanaz.

Bigarrena.– Kargu-uzte horrek 2022ko abuztuaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beraz, horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 18a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.